



Etorkizuneko haziak ote?

Ikerkuntzak eta teknologia berrien garapenak arazorik gabeko mundua imajinatzeraz garmatzate: biztanle guztientzako elikagaiak eta kutsadurarentzako eta ingurunearen suntsipenarentzako konponbideak.

Interneten bidez bioteknologiari buruzko ikerketa txiki bat egitea proposatzen dizuegu. Datu horiek eta IHITZAren zenbaki honetan bildu ahal dituzuenak abiapuntu hartuta, eztabaida antolatuko dugu ikasgelan.

Elikadura eta ingurugiroa

Elikadura munduarekin dugun harremanaren beste adierazle bat da. Munduko biztanle gehienak gose diren aldi berean, elikadura desorekatua eta gehiegizkoa da lehen munduko heriotzen lehenengo zioa. Bestalde, kultura eta teknologiaren garapenak ez gaitu askatu naturarekiko menekotasunetik: beste izaki bizidun batzuek ekoiztiko materia organikoa behar dugu, materia eta energia lortzeko. Horregatik, ezin dugu ahaztu ekosistemak ukitzen dituzten jarduketek ondorioa dakarkiotela, bumerana legez, geure osasunari.

Zer arazori egin behar diegu aurre?

- Zergatik du nekazaritzak industria kimikoarekiko gero eta menekotasun handiagoa?
- Zer dakarkigu genetikoki eraldatutako haziak eta produktuak erabiltzeak?
- Zergatik dago gosea munduan?
- Behar beste elikagai ekoizteko gai al gara?
- Benetan al da altruista bioteknologi enpresen asmoa?
- Seguruak eta osasungarriak al dira hartzen ditugun elikagaiak?
- Ekarri ahal du osasun arriskurik teknika berriak —elikagaien irradiazioa, adibidez— erabiltzeak?
- Zer dela eta agertu dira kutsagarriak elikadura katean? (Gogoratu Belgikako oilaskoekin gertatutakoa).

Arazo horien gainean eztabaidatzeko interneteko helbideak

1. FAOk (Nekazaritza eta Elikadura gaietarako Nazio Batuen Erakundeak) gaztelaniazko web gune bat du (www.fao.org); bertan Nekazaritza atala eta, horren baitan, Bioteknologia atala kontsulta daitezke.



2. MONSANTO enpresak soia transgenikoa ekoizten du; soia horri osoko herbizida baten ondorena jasateko gen bat atxiki zaio. Haren web gunean (www.pharmacia.com), ingelesez idatzirik Monsanto atalera jo dezakezue, beraren produktuei buruzko informazio bila.



3. NOVARTIS enpresak *bst* herbizidaren eragina jasaten duen arto transgenikoa erabiltzen du; *bst* herbizidak *taladro* deritzana eta beste intsektu batzuk akabatzen dituen *bt* toxina sortzen du.



- Novartisen web gunean (www.info.novartis.com) aurkituko duzue, ingelesez, enpresa horrek garatutako produktuei eta bost kontinentetan duen banaketa eta merkaturatze bideei buruzko informazioa. Agribusiness izeneko atalean nekazaritza jasagarriaz mintzatzen da.

4. GREENPEACE erakundea elikagai transgenikoen aurkako kanpaina garatzen ari da. Bere web gunean (www.greenpeace.org) *Genetic engineering* atalean erakundearen kanpainei buruzko informazioa aurkituko duzue.

